


FLYSCHEKO DRAGOIA



FLYSCH
Bizkaia

PARKE GEOLÓGICO
PARQUE GEOLÓGICO
GEOLOGICAL PARK



FLYSCH

Bizkaia

PARKE GEOLOGIKOA
PARQUE GEOLÓGICO
GEOLOGICAL PARK

2025

FLYSCH EKO DRAGOIA

Argitalpena eta inprimaketa

Getxoko Udala

Jata-Ondo Landa Garapen Elkarte

Laguntzaileak

Bizkaiko Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza

Diseinua eta edukiak

Ekobideak

www.ekobideak.com



Getxo
bizi ezazu



JATA-ONDO
LANDA GARAPEN
DESARROLLO RURAL




Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TERMINO, MEDIOAMBIENTE
EUSKALTIKOLAK
DEPARTAMENTO DE TRABAJO,
COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Flyscheko dragoia	1
Dragoiaren bizilekuak	3
<i>Punta Galeako nummuliteak</i>	3
<i>Barrikako marearteko zabalgu- nea</i>	5
<i>Butroeko gaztelua</i>	7
<i>Billao uhartea</i>	9
Beste dragoigune interesgarri batzuk	11
<i>Azkorriko hondartza</i>	11
<i>Sopelako K/Pg muga</i>	11
<i>Armintzako Flysch beltza</i>	12
<i>Gaztelugatxeko Doniene</i>	12
Non ezkutatzen da dragoia?	13
Denborapasak!	15
Hurrengora arte, dragoia...	19



Gure itsas zaindaria

FLYSCHeko DRAGOIA



Kantauri itsasoaren sakonean, non olatuek gogor jotzen duten Bizkaiko kostaldeko itsasalabarren kontra, kondaira bat ezkututzen da: **Flyscheko dragoi**arena.

Badirudi, itsasoko izaki honek antzinako istorioetako leviatan baten itxura duela, bere izugarritzko tamainarengatik eta daukan suge formarengatik.

Euskal marinelek kontatzen dituzten istorioen arabera, dragoiak oinatz erraldoiak uzten ditu hondarrean itsasoaren sakonetik ateratzen denean, zelatari dagoen seinale.

Diotenez, dragoi hau Bizkaiko kostaldeko antzinako zaindaria da, bere babes bermatzen eta ekosistema berezi honen aberastasun naturala zaintzen duena.

Ez da ipuinetan agertzen diren dragoien modukoa, berez, leviatan bat da, Flysch Bizkaiko kostaldearen itsasalabarretan bizi den itsas sugea.

**AUSARTZEN AL ZARA DRAGOIAREN
EZKUTALEKUAK AZTERTZEN?**



Sinestezina badirudi ere, orain dela 200 milioi urte inguru, Bizkaia itsas tropikal batean urperatuta zegoen, eta gaur egun ikusten ditugun itzulezko gailurrak, bere egunean koral-hesi bat izan litzakete. Horregatik, ez da harritzekoa gure mendi gailurretan itsak fosilak aurkitzea.

Altxor hauek, eta beste batzuk, Flysch Bizkaian aurkitu ditzakegu, gure inguruko entziklopedia aberats bat dira non, orriz orri, toles tolesduraz, agerian uz ten dizkigute Lurreko tokian gauden iraganeko funtzesko uneak.

KOKAPEN MAPA



PUNTA GALEAKO NUMMULITEAK





Edoizein dragoiri dirua guztatzen zaio, urretan zein txanponetan. Baina, ba al zenekien Flyscheko dragoiak gure kostaldean daukala ezkutatuta bere altxorra? Getxon marea jais-ten denean, Punta Galeako itsaslabarretan fosil moduko txanpon txiki batzuk agertzen dira, *nummuliteak* izenekoak.

Gau guztietan txanpon bitxi hauek kontatzen ditu banan-banan. Orro bat entzuten baduzu, ez dira itsaslabarren kontra jotzen ari diren ola-tuak, Flyscheko dragoia «Aberatsa naiz!» oihukatzen dagoela baizik.

Nummuliteak, orain dela milioi urte bizi izan ziren animali txiki batzuen fosilak dira. Ba al dakizu zergatik deitzen diren horrela? Txanpon baten itxura dutelako, izan ere, greko-tik datorren *nummus* hitzak «txanpona» esan nahi du.



Nummulite aleak, Punta Galeako «txanpon fosilak»



Hondar bustiaren artean, soilik itsasbeheretan, forma xeblebre batzuk azaleratzen dira: harean lotan dagoen dragoi baten sorbaldaren markak dira. Gure dragoia da, eta kostaldearen zaindari gisa egunero egiten duen lanetik atseden hartzen ari da.



Diotenez, gauean kontu handiz itsaslabarretara hurbilduz gero, dragoiaren zurrungak entzun daitezke, lurrarekin dar-dar egiten duten soinu biziak.

Marearteko zabalgunea, itsasbeheraren mailan dagoen kostaldeko harri-plataforma bat da. Itsasoak itsaslabarretan duen higadura etengabearen ondorioz sortzen da, biodibertsitate handiko ekosistema paregabea sortuz.



Barrikako hondartzako marearteko zabalgunea, itsasbeheran ikus daitekeena.

BARRIKAKO MAREARTEKO ZABALGUNEA





**BUTROEKO
GAZTELUA**



Baso berdeen artean Butroeko gaztelua dago. Bere harrizko dorreak eta harresia denboraren joan-etorrien lekukoak dira.

Diotenez, Flyscheko dragoia orain dela urte asko iritsi zen gaztelura, ondoan dagoen Butroe ibaian zehar igerian, aterpe baten bila bere atzetik joaten ziren ehiztarietatik babes-teko. Gazteluko pasabide sekretu eta ganbera ezkutuen artean aurkitu zuen bere etxea, eta ezkutalekua; eta bertatik behatu ahal zuen mundua inork bera ikusi gabe.



Butroe gaztelua Gatikan dagoen Erdi Aroko gotorleku neo-gotikoa da. Gotorleku izugarri hau, Ondare Historiko izendatua, muino baten gainean dago, hainbat espeziedun ehun urtetik gorako baso batez inguratuta.

Butroeko gaztelua



Gorlizeko itsaslabarretan, itsasargiaren begiradapean, Billao uhartea dago.

Urrutitik, uharte honek dragoi baten antza du, bere gorputza Kantauriko uretatik ateratzen ari dela, beti ere adi itsaslabarretatik hurbil zelata dezakeen edozein mehatxuri.

Uretan murgilduta, itsasoko arriskuetatik zaintzen ditu kostaldea eta herriak, ekaitzak uxatuz bere orro ozenen bitartez.


Billao uhartea Gorlizeko kostaldearen aurrean dagoen uhartetxo bat da. Forma luzatua dauka eta landaretza berdez estalita dago.

Gainera, babestuta dagoen eremu natural bat da.

Billao uhartea.



BILLAO UHARTEA



Flysch Bizkaian zehar, badira dragoiak bere oinatzak uzten dituen beste leku batzuk. Ezagutu nahi al dituzu?

AZKORRIKO HONDARTZA

Getxoko leku naturalenean, harea beltza daukan hondartza bat dago Gorrondatxe edo Azkorri deritzona.

Diotenez, harearen artean distira egiten dutenak dragoiaren ezkatak dira.



SOPELAKO K/PG MUGA

Sopelako itsaslabarraren erdialdean aurkitu dezakezu meteorito famatuaren aztarna.


Garai horretan desagertu ziren dinosauroak gure dragoiaren arbasoak dira.



ARMINTZAKO FLYSCH BELTZA

Aspaldi, pirata batzuk Flysch Bizkaiaren kostaldeari zeharkatu nahi izan zuten, Armintza auzotik, Lemoizen.


Dragoiak bere suarekin urrundu zituen, eta honek labar beltzak erre zituen, gorrixka utzi arte.



GAZTELUGATXEKO DONIENE

Nazioartean ezaguna, Gaztelugatxeko Doniene biotopo babestua, hegaztientzako paradisua eta «filmeko» eszenatokia da.

Gure dragoiari asko gus-tatzen zaio gotorleku hau Bakiotik ikustea.



Kontsultatu leku guztiak:
www.flyschbizkaia.eus



Mapa honetan, Flyscheko dra-
goiaren kokaleku desberdinak
daude. Denak aurkitu al dituzu?

*Gogoratu Flysch Bizkaiara iristeko
garraio publikoa erabiltzea:*



metro bilbao




Bizkaia
bizkaibus



1.



SOPELA



BARRIKA



4.



GORLIZ

PLENTZIA

NOLA IRITSI:



GETXO



BILBAO





LEGENDA

 GR 123 Ibilbidea

DRAGOIAREN BIZILEKUAK:


1. Punta Galeako nummuliteak
2. Barrikako marearteko zabalgunea
3. Butroeko gaztelua
4. Billao uhartea

BESTE DRAGOIGUNE BATZUK:

- a) Azkorriko hondartza
- b) Sopelako K/Pg muga
- c) Armintzako Flysch beltza
- d) Gaztelugatxeko Doniene

DENBORAPASAK!

Margotu gure Flyscheko dragoia:



AUSARTZEN AL ZARA IZEN BAT EMATERA?


HIZKI SALDA

BARRIKA
BIZKAIA
BUTROE
DRAGOI
FLYSCH
FOSIL
UHARTE
ITSASO

B	I	Z	K	A	I	A	O
F	K	F	L	Y	S	C	H
T	K	U	H	A	R	T	E
B	U	T	R	O	E	D	T
E	B	A	R	R	I	K	A
F	Y	D	R	A	G	O	I
F	D	F	O	S	I	L	Q
I	T	S	A	S	O	O	K




FLYSCHKO LABIRINTOA




Lagundu iezaiozu Flysche-
ko dragoiari bere txanpo-
nak aurkitzen.





7 DESBER- DINTASUNAK



Erantzunak:

- 1) Ilargia alderantziz, 2) San Joan basiliza, 3) Dragoiaren isatsa,
- 4) Sorbaldako bi orban, 5) Bularreko lerro bat 6) Buruko adar txiki bat,
- 7) Bi oskolen kolore aldaketa.

Espero dugu Flysch Bizkaiaren eta bere dragoiaren sekretuetako asko ikasi izana. Izaki fantastiko horrek gure lurraldea, gure etxea, balioestea gogorarazten digu egunero.

Horrela, Flyscheko dragoiaren kondaira gizakien eta naturaren arteko loturaren ikur bihurtuko da.

Benetako aberastasuna harmonian eta naturarekiko errespetuan oinarritzen dela gogorarazten diguna.



Flyscheko dragoiak, zaindari babesleak, kostaldea zaintzen jarraituko du, lur eta itsasoaren arteko mugaren oreka bermatuz...

